



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

OHIKO TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN AKTA

Bilera- zenbakia: 2025ICGO0015

Eguna: 2025-09-30

Ordua: 18:30 -18:51

Tokia: Alkatetza

Bertaratuak

- Xabier Urdangarin Lasa Astigarragako EH Bildu
- Ainara Vazquez Martinez Astigarragako EH Bildu
- Naroa Del Orden Otero Astigarragako EH Bildu
- Maria Otaegi Velez Astigarragako EAJ- PNV
- Patxi Suarez Perez Udal talde euskal sozialistak

Idazkaria

- Kontxi Urdampilleta Santamaria

Aztergaiak

- 1.- 2025eko irailaren 16ko akta onartzea.
- 2.- Astigarragako Udalean euskararen erabilera normalizatzeko plan estrategikoa (VII. Plangintzaldia) 2023-2027.
- 3.- Ergobia plazatxoko berrurbanizazioa eta estalki berriko lanen obra-proiektua.
- 4.- Ergobia plazatxoko berrurbanizazioa eta estalki berriko lanen kontratazio-espedita.
- 5.- Norberto Almandoz plazako azoka txikirako estalki bizia eraikitzeke obra-proiektua.
- 6.- Norberto Almandoz plazako azoka txikirako estalki bizia eraikitzeke kontratazio-espedita.
- 7.- Etxez etxeko zerbitzua finantzatzeko Udalaren eta Aldundiaren arteko lankidetze hitzarmena luzatzea.
- 8.- Gipuzkoan Gazte Tour ekimenerako hitzarmena.
- 9.- Herriko kirolarien zuzenduriko dirulaguntza deialdia (2025).
- 10.- Astigarragako emakumeen memoria historikoa berreskuratzeko, balioan jartzeko eta herritarren eskura jartzeko genero ikuspegidun ikerketa-beka esleitzea.
- 11.- Lehenengo sektoreko proiektuak sustatzeko udal dirulaguntzen ebazpena.
- 12.- Informazio, galdera eta eskariak.

Esan- eginak eta erabakiak

1.- 2025eko irailaren 16ko akta onartzea.

Maria zinegotzia abstenitu egin da aurreko bileran egon ez zelako. Gainerakoek, berriz, alde bozkatu dute. Beraz, akta onartu egin da.

2.- Astigarragako Udalean euskararen erabilera normalizatzeko plan estrategikoa (VII. Plangintzaldia) 2023-2027.

Alkateak plana prestatzeko jarraitutako urratsak azaldu ditu, bai eta dokumentuaren nondik norakoak ere. Ondoren Herritarrak batzordearen irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

Bakarra.- Onartzea VII. Plangintzaldirako Astigarragako Udalean euskararen erabilera normalizatzeko plan estrategikoa (2023-2027).

Bozkatzera ekin zaio, eta irizpena aho batez onartu da.

3.- Ergobia plazatzoko berrurbanizazioa eta estalki berriko lanen obra-proiektua.

Alkateak obraren nondik norakoak azaldu ditu eta adierazi auzotarrekin bilera egin dutela obra honen nondik norakoak eta auzoan egingo diren beste batzuek berri emateko. Ondoren, Lurralde batzordearen irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Bakarra.- Onartzea Ergobian kiosko berria jartzeko, plaza berrurbanizatzeko, irisgarritasun inklusiborako eta drainatze iraunkorrekota sistema duten berdeguneak gehitzeko proiektua, Ocamica Berbois arkitektura elkarteak 2025eko martxoan idatzia.

Bozkatzera ekin zaio, eta irizpena aho batez onartu da.

4.- Ergobia plazatzoko berrurbanizazioa eta estalki berriko lanen kontratazio-espeditentea.

Alkateak Antolaketa batzordearen irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehena.- Obra-kontratu honetarako prestatu diren baldintza plegu administratiboak onartzea.

Bigarrena.- Kontratazio espeditentea onartzea eta esleipen prozedurari hasiera ematea.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena aho batez onartu da.

5.- Norberto Almandoz plazako azoka txikirako estalki bizia eraikitze obra-proiektua.

Alkateak obraren nondik norakoak azaldu ondoren, Lurralde batzordearen irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Bakarra.- Onartzea Norberto Almandoz plazan azoka txikirako estalki bizia eraikitze proiektua, Ekaitz Uribe Rus arkitektoak 2025eko irailean idatzia.

Bozkatzera ekin zaio, eta proposamena aho batez onartu da.

6.- Norberto Almandoz plazako azoka txikirako estalki bizia eraikitze kontratazio-espeditentea.

Alkateak Antolaketa batzordearen irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehena.- Obra-kontratu honetarako prestatu diren baldintza plegu administratiboak onartzea.

Bigarrena.- Kontratazio espeditentea onartzea eta esleipen prozedurari hasiera ematea.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta proposamena aho batez onartu da.



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

7.- Etxez etxeko zerbitzua finantzatzeko. Udalaren eta Aldundiaren arteko lankidetze hitzarmena luzatzea.

Alkateak azaldu du zerbitzua erabiltzaileek eta udalak ordaintzen dutela, eta Aldundiak horren finantzaketan parte hartzen duela. Gaineratu du hitzarmena orain dela urte batzuk sinatu zela, eta berri bat lantzen daudela, baina bitartean baldintza berean Aldundiak luzapen bat proposatu duela, eta horrek dakarrela udalak bere gain hartu behar izatea zerbitzu honek jasan dituen igoera ekonomikoak. Jarraian Ongizatea batzordearen irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehena. - Etxez etxeko laguntza zerbitzua finantzatzeko, 2022ko maiatzaren 23an, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Udalak sinatutako lankidetze hitzarmena urtebetez luzatzea (2026ko irailaren 30a arte), hitzarmenaren 14. klausulari jarraiki.

Bigarrena. - Alkateari ahalmena ematea akordioa gauzatzeko beharrezkoak diren agiri guztiak sinatzeko.

Hirugarrena. - Akordioaren berri ematea Gipuzkoako Foru Aldundiari eta udal kontuhartzaitzari.

Bozkatzera ekin zaio, eta proposamena aho batez onartu da.

8.- Gipuzkoan Gazte Tour ekimenerako hitzarmena.

Alkateak Gazte Tour ekimena zer den azaldu ondoren, Herritarrak batzordearen irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehena. - Gipuzkoan Gazte Tour ekitaldia Astigarragan ospatzeko Gipuzkoako Foru Aldundia eta Astigarragako udalaren arteko lankidetze hitzarmena ontzat ematea.

Bigarrena. - Alkatea, beharrezkoak diren agiri guztiak sinatzeko baimentzea.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta proposamena aho batez onartu da.

9.- Herriko kirolarien zuzenduriko dirulaguntza deialdia (2025).

Alkateak Herritarrak batzordearen irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehena. - Astigarragako kirolariei zuzendutako diru-laguntza oinarriak onartzea.

Bigarrena. - Dirulaguntzen deialdi publikoa egitea.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena aho batez onartu da.

10.- Astigarragako emakumeen memoria historikoa berreskuratzeko, balioan jartzeko eta herritarren eskura jartzeko genero ikuspegidun ikerketa-beka esleitzea.

Alkateak Herritarrak batzordearen irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehena. - Beka Paula Valiente de la Cruzek (72547477A) aurkeztutako "Astigarragako LBTIAQ+ emakumeen memoria historikoa (Memoria histórica de mujeres LBTIAQ+ de Astigarraga)" proiektuari (47,29 punturekin) EMATEA, aurkeztutako lan bakarra izanik, merezimendu-lehiaketaren puntu-banaketaren emaitza aintzat hartuta, gaiarekiko interesagatik eta herrian LBTIAQ+ emakumeen mugimendua aktibatzeke baliagarria izan daitekeelako.

Bigarrena.- Erabakiaren berri ematea eskaera aurkeztu duenari.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena aho batez onartu da.

11.- Lehenengo sektoreko proiektuak sustatzeko udal dirulaguntzen ebazpena.

Alkateak Lurraldean batzordearen irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Bakarra.- Astigarragako lehen sektoreko proiektuak sustatzeko 2025. urteko dirulaguntzak onartzea, espediente hauentzat:

- 2025HDIR0001 espedienteko titularrari 6.000,00 €-ko dirulaguntza.
- 2025HDIR0002 espedienteko titularrari 6.000,00 €-ko dirulaguntza.
- 2025HDIR0003 espedienteko titularrari 3.367,19 €-ko dirulaguntza.
- 2025HDIR0004 espedienteko titularrari 6.000,00 €-ko dirulaguntza.
- 2025HDIR0006 espedienteko titularrari 6.000,00 €-ko dirulaguntza.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena aho batez onartu da.

12.- Informazio, galdera eta eskariak

Alkateak azaldu du jaso dutela udal talde sozialistak zerga fiskalei egindako ekarpena, eta hori ez bada sartu udal osoko bilkuran aurkeztuko den proposameneari izan dela horretarako beste Antolaketa batzorde bat egin behar izatea, baina alegaziotzat hartuko dela.

Bestetik, Patxi zinegotziak galdetuta, alkateak 2026ko udal aurrekontua onartzeko egutegiaren berri eman du: urriaren 28ko antolaketa batzordean aurkeztea, emandakinak aurkezteko epea zabaltea azaroaren 11 arte, azaroaren 18ko antolaketa batzordean aztertzea eta azaroko udal osoko bilkurara eramatea, hasierako izaeraz onartzeko.

Alkateak bilkura amaitutzat eman du, eta nik, Idazkariak eztabaidatua eta erabakitakoa jasota gera dadin honako agiria egin dut.

Astigarragan, 2025eko irailaren 30ean.


Kontxi Urdampilleta Santamaria
Ordezko udal- idazkaria